

## BATZU, Les Tours de Babel

Trans-Europ-Repress, 1985, Mauvezin

“Itzulpenari buruzko saiakerak” azpitolupean bost adituren lanak biltzen ditu liburuak: A. Berman, G. Granel, A. Jaulin, G. Mailhos eta H. Meschonnic traduktologo ezagunenak, hain zuzen ere. Honezaz gainera bi testu dakartzatza liburuak; Bibliaren Genesis XI (1etik 9ra), pasarte, Meschonnic-en itzulpean, ohar baliotsuz hornitua eta Friedrich Schleiermacher, idazle eta itzultzaile sonatuak, itzultzeko metodo desberdinei buruz idatzi zuen saiakera ezaguna: **Ueber die verschiedenen Methoden des Uebersetzens**, aipaturikoa, A. Bermanek itzulia.

Liburuaren lehen partea A. Bermanen lan luze batek hartzen du: **Itzulpena eta letra edo urrunaren aterpea** titulupean azterketa luze bat egiten du Mendebaldean azken bi mila urteotan nagusia izan den itzultzeko era *etnozentriko*, *hipertestual* eta *platonikoaz*, eta beronen gaintitze bezala *itzulpen etiko*, *poetiko* eta *pentsatzailea* proposatzen du egileak.

A. Bermanek esaten digu itzulpen etnozentrikoa Erroman jaioa dela eta erromatarren kultura, bere hasieratik, itzulpen-kultura bat dela: termino, forma eta testu grekoak latinduz egiten dela hori, nahiz eta nahaste-borrastearengatik ezezagun samar bihurtuak izan. Itzulpen anexionista honen lehen teorigileak Zizeron eta Horazio izan dira eta ondoren, San Hieronimo, kristaua, “Vulgata” deritzon Bibliaren itzulpena latinera egin zuena. San Hieronimok honela definitu zuen itzulpena: “*Non verbum e verbo, sed sensum exprimere de sensu*”. Beraz, A. Bermanek dio, itzulpena “zetzua” atzematea besterik ez bada, derrigorrean anxio izan behar du. Baina San Hieronimoren ideia hauek, Zizeron eta Horaziorengan ezezik, San Pauloren eta pentsamendu grekoan ere zainak badituzte. San Paulok ez zuen itzulpenaz hitzegin baina bai “gorputzaz” eta “arimaz”, eta heriotza ekartzen duen “letraz” eta bizia ematen duen “izpirituaz”. Itzulpenak ez du zerikusirik letra hilarekin, baizik eta izpirituaren

bizia, zentzua atzeman behar du. Horrela judua itzulpenaz mesfidatzen zen bitartean, kristauak uste izan du zentzua atzeman eta munduko herri guztietara heda zitekeela. Beraz kristautasunaren oinarrian “itzulpenerako joera edo bulkada” bat egon da betidanik, filosofikoki platonismoaren etenean oinarritzen dena.

Zer zentzutuan zentzuaren atzematel platoniko hau “etnozentrikoa” den galdetzen badugu esan behar da zentzuarekiko leialtasuna letrarekiko leialtasunari kontrajartzen zaiolako. Bai, zentzuarekiko leialtasuna derrigorrean letrarekiko desleialkeria da. Baina letra arrotzarekiko desleialkeria den hau norbere letrarekiko leialtasun da. Zentzua beti itzulpena egiten dueneko hizkuntzan atzematzen da beti. Zentzuaren atzematelak beti hizkuntza baten lehentasuna baieztatzen du.

Ondorioz, esan genezake, itzulpen etnozentrikoak bi printzipio koerlatibo dituela: obra arrotza itzuli behar da itzulpena denik ez “sentitzeko” bezala. Eta bestalde, autoreak itzulpeneko hizkuntzan idatzi izan balu bezalako efektua egin behar dio itzulpenaren irakurleari.

A. Bermanen ustetan, XIX eta XX mendeetan auzitan jarri izan den itzulpenaren ikuspegi hau aurrera eraman behar da “obren” itzulpenari dagokionean. Onartzen du badirela zentzua atzematel soilera itzulpena mugatu beharreko testu ugari baina obrak zentzu-kontzentrazio eskergak diren heinean, zentzua era amaigabeak trinkoturik dutela eta atzematel-ahalbide guztiak ezinezko bihurtzen dituztela esaten du. Horrela dio itzulpen hipertestuala eta etnozentrikoa auzitan jartzeak edozein itzulpenek derrigorrean duen alderdi etnozentriko eta hipertestuala finkatzea edo zehaztea esan nahi duela, izan ere bere baitan zentzuaren atzematelak eta literatur transformazioak duten partea argitzea eskatzen baitu.

Gero itzulpenaren definizio gisa historian zehar eman izan diren hainbat metaforaren zentzu negatiboa aztertu ondoren aitortzen du tradizioz itzulpena zentzuaren transmisio txar bat bezala eta bigarren mailako hipertestualitate bezala ikusi izan dela, guztia hau itzulpenaren definizio etnozentriko eta hipertestual baten ondorio delarik.

Ondoren, derrigorrezkotzat jotzen du A. Bermanek gauzaren egoera aldatzeko itzulpenaren analitika bat proposatzea eta deformazioaren sistematika bat burutzea: bere aldetik hamahiru joera deformatzaile detektatzen ditu eta honela izendatzen ditu: **errazionalizazio, argikuntza, luzapena, noblekuntza eta arruntkuntza, pobrekuntza kantitatezkoa, homogenokuntza, erritmoen deuseztapena, azpiko sare adierazleen deuseztapena, sistematismo testualen deuseztapena, mintzaira bernakularrezko sareen deuseztapena (edo exotizazioa), esamolde eta idiotismoren deuseztapena eta hizkuntz elkargaitasunaren ezabaketa.**

“Itzulpenaren etika” izeneko 4. kapituluaren, itzulpena eta komunikazioaren arteko harremanak aipatzen ditu eta azken kontzeptu hau zentzu teknikoegian ulertu eta itzulpenari aplikatuz etorri diren murrizketak salatzen ditu, obra literarioen kasuan “komunikazioa kontra-produktiboa” izan litekeela esateraino. Aldiz, uste du, itzulpen etikoa “Bestea Beste den heinean ezagutzea eta onartzea” esan nahi duela. Horrela itzulpenak “ireki” egin behar du Arrotza den hori norbere hizkuntzara, eta hau komunikatzea baino zerbait gehiago dela uste du. Itzulpenak agerpenaren agerpen (manifestation d’une manifestation) izan behar duela eskatzen du. Eta ondorioz, esaten du Arrotza den hori bere gorpuztasun haragizkoan hartzekoa bada, hori obraren letrarekiko harre-

manean bakarrik egin litekeela. Azkenik gogorarazten digu alemaniar erromantikoeak, Schleiermacher eta Goethek eta abarrek egin zuten modura itzulpena “litalitate eta manifestazioaren manifestazio” gisa bakarrik onar daitekeela.

A. Bermanek bere teoriaren eta proposamenen sendogarriztat, zenbait itzultzaile ereduren lanen iruzkina eskaintzen du: lehena Holderlin, alemaniar poetak egindako Sofokleren “**Antigona**” eta “**Edipo errege**” obren itzulpena proposatzen du itzulpena “manifestazio” gisa izan daitekeenaren adibide gisa, Onodoren, eta ildo beretik, Chateaubriand, erromantiko frantsesak 1836an argitara eman zuen Miltonen **Paradise Lost** (Paradisua Galdua) obraren itzulpena komentatzen du. Chateaubriandek itzultzeko zuen sentiberatasun apartaren berri itzultzailearen beraren honako hitz hauetan jasotzen du: “*Jusqu’ici les traductions de ce chef-d’oeuvre ont été moins de véritables traductions que des épitomés ou des amplifications paraphrasées, dans lesquelles le sens général s’aperçoit à peine*”.

Eta azkenik, eta hirugarren eredu gisa, Klossowskiren **Eneidaren** itzulpena proposatzen du.

Liburua osatzen duen bigarren artikulua Gérard Granel-ek idatzia da eta “**Hizkuntzak terminal logikoak dira**” tituluari erantzuten dio eta zenbait kontzeptu filosofiko birplanteiatzeko orduan itzulpenak egin lezakeen ekarpena aipatzen du, besteak beste, Heidegger-en **Sein und Zeit** obraren kasu ezaguna aipatzen duelarik.

Henri Meschonnic-ek bere aldetik “**Filosofo-testu baten eta bere itzulpenen poetika: Humboldt, historiaren idazle gisa bere egitekoa**” tituluari erantzuten dion artikulua eskaintzen digu.

Georges Mailhos-ek, berriz, “**Traduire, un avant-dire**” Izenburupean Heraklitoren “*fysis kryptesthai filei*” esamoldeak itzultzaile desberdinen itzulpenean hartu dituen era desberdinak konparatu eta komentatzen ditu, ondoren Nietzsche eta beste zenbait autoreren pasarteak itzultzearen ondoriozko gogoetak egiten ditu.

Annick Jaulin-ek “**Le nominalisme à l’oeuvre dans la constitution de la métaphysique: traduction/tradition d’Aristote**” izenburupean unibertsala eta *ousia*, unibertsala izen huts bezala, *ousiaren* itzulpena substantzia gisa, lehen toposa: jainkoaz, bigarren toposa: substantzia bananduez, hirugarren toposa: *to ti en einai* eta abar bezalako puntuez eta itzulpenaz zenbait gogoeta egiten ditu.

Azkenik, eta lehen esan bezala, Schleiermacher-en “**Itzultzeko metodo desberdinez**” saiakeraren Antoine Bermanek egindako itzulpena dator. Horretarako erabili duen testua autoreak 1813an Berlingo Zientzien Erret Akademian irakurri zuena da. Testu garrantzizkoa denik ezin uka, izan ere era sistematikoz laburbiltzen baititu Alemania erromantikoan itzulpenari buruz zeuden intuizio eta esperientziak. Gainera, erabat baztertzen du itzulpena imitazioaren esparru kaltegarritik, non egon baitzen itxirik XVI mendetik hasita. Bestalde, harreman berri batean ezartzen du jatorrizko hizkuntza eta hizkuntza hartzailearekiko. Friedrich Schleiermacher-entzat aski garbi dago, ama hizkuntza itzulpenaren esperientziara irekitzen ez den bitartean “ama hizkuntza partzial” bezala geratzen dela. Hauxe da labor esateko alemaniar **Bildung** deritzonak eskaintzen digun esperientzia. Testu honek, bestalde, izan du eraginik Espainian eta gaztelaniaren munduan Ortega y Gassetek itzulpenari buruz egin zuten gogoeten bitartez, izan ere neurri handi batean idazle eta itzultzaile alemaniar honi zor baitzizkion gai honetan zituen ideia nagusienak.

Funtsean, “**Les Tours de Babel**”, ahalegin garrantzizko bat da itzulpenaren teorian eta praktikan luzaroan bizirik egon diren eta oraindik ere erabat hil ez diren joerak gaingintzeko argitasunak eskaintzeko, eta hain zuzen ere horretan dago pentsalari talde honen ekarpenaren praktikotasuna eta uste dugu euskal, itzultzaileontzat gogoetagai bikaina eskaintzen duela, gure itzulpen “*etnozentrikoaren*” aztarnak baztertzen eta itzulpen “*etikoago*” bat, hau da, gaurko kultura modernoaren sentiberatasunetik onargarriago den itzulpen bat egiten asma dezagun.

*X. Mendiguren*